A3262




martxoak 13, larunbata
San Martzial plazatik, 10:00etan

Ibilbide
honetan
Altza
kaletarraren
Historia
ezagutzeko
aukera
izango dugu
bertatik
ezagutu
dutenek
kontatua:
Jose Luis Ralla
Antonio Unanue
Isidra Artano
Conchi Andonegi
Miguel M.Arizmendi
Vicente Elosegi
eta Marcial Artola.

**ALTZAKO EUSKAL JAIAK-99**

## LO QUE NO SE NOMBRA NO EXISTE

Plazandreok quiere rescatar del olvido los nombres y profesiones de mujeres que forman parte de la historia de nuestra ciudad.

Las mujeres, a lo largo de la historia, hemos sido relegadas al silencio, se nos ha negado el derecho a la palabra, esa palabra que nombra al mundo que nos rodea y en el que nos gustaría poder reconocernos.

Por eso, Plazandreok quiere hacer visible la presencia de las mujeres, rescatando la diversidad de sus oficios y vidas, recuperando así nuestra memoria.

Hurgar en la historia permite reconstruir paisajes con escenarios más diversos que los que reducen a las mujeres al hogar, a la maternidad y a las tareas domésticas.

Proponemos rescatar la variedad de ocupaciones que han desempeñado éstas: contrabandistas, pelotaris, arrieras, cargadoras, hilanderas, costureras... Así como hay calles y plazas dedicadas a los corsarios vascos, marinos, pescadores del Gran Sol, prebostes o podabines (los que podaban las viñas) podría haber otras dedicadas a las carboneras, iñudes, bateleras, maestras...

Reivindicamos nombres de mujeres y de oficios de mujeres para sucesivas calles, plazas y edificios públicos donostiarras. Si el callejero es un reflejo de lo que la ciudad quiere destacar, no parece que la mitad de la población -la femenina- esté representada, ya que de las casi 800 calles y plazas de Donostia, sólo 29 llevan nombre de personajes femeninos.

Si descontamos las reinas, infantas, aristócratas, vírgenes y santas, sólo quedan 13 mujeres de a pie.

Proponemos una lista abierta de mujeres que podrían incorporarse al callejero donostiarra:

Bersolaris: Marie Argain, Marie Etchegaray, Rosario Artola, Mikaela Elicegi...

Políticas: Casilda Méndez, Paulina Arana Goiri, Dolores Ibárruri, Julia Álvarez, Carmen Querejeta, Madres de la Plaza de Mayo, Rigoberta Menchú...

Sufragista donostiarra: Benita Asas...

Escritoras: Tene Mujika, Julene Azpeitia, Ernestina de Champourcin, Pilar de Cuadra...

Una ciudad que vaya incorporando a todos sus habitantes, denominando con personajes femeninos y oficios de mujeres a nuevas calles, plazas, jardines y edificios públicos, será una ciudad más integradora.

**Plazandreok**

Con la colaboración de la **Concejalía de la Mujer**
Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián

## MUJERES EN LAS CALLES

DE LAS CASI 800 CALLES Y PLAZAS DE DONOSTIA, SÓLO 29 LLEVAN NOMBRE DE PERSONAJES FEMENINOS.

SI DESCONTAMOS LAS REINAS, INFANTAS, ARISTÓCRATAS, VÍRGENES Y SANTAS, SÓLO QUEDAN 13 MUJERES DE A PIE.

UNA CIUDAD QUE VAYA INCORPORANDO A TODOS SUS HABITANTES, DENOMINANDO CON PERSONAJES FEMENINOS Y OFICIOS DE MUJERES A NUEVAS CALLES, PLAZAS, JARDINES Y EDIFICIOS PÚBLICOS, SERÁ UNA CIUDAD MÁS INTEGRADORA.

Plazandreok

# DONOSTIAKO KALEAK



# EMAKUME IZENA DU ETORKIZUNAK

# AIPATZEN EZ DENAK EZ DU IZANIK

Plazandreok Plataformak gure hiriaren historian parte hartu duten emakumeen izenak eta lanbideak berreskuratu nahi ditu.

Emakumeok historian zehar isiltasuna izan dugu lagun, hitza ukatu baitigute. Hitza da inguratzen gaituena izendatzeko daukagun tresna eta, beraz, emakumeok ere geureganatu behar duguna, ingurune horretan geuk ere izana izan dezagun.

Horregatik nahi du Plazandreok Plataformak emakumeak ikusgarri bihurtu, emakumeen lanbide eta bizitzak ilunpetik atera eta plazaratu.

Historian pixka bat arakatuz gero, emakumea etxekoandre eta ama lanetan ezezik, beste zenbait eszenatokitan ere erraz topatuko dugu.

Lanbide desberdin askotan aritutako emakumeak aurkituko ditugu: kontrabandistak, pilotariak, mandazainak, zamaketariak, iruleak, jostunak... Gaur egun badira gure hirian euskal kortsarioen, marinelen, Gran Sol-eko arrantzaleen, probostuen edota inaustaileen oroitzapenez izendatutako kaleak. Era berean, ikazdun (ikatza saltzen zuten emakumeak), iñude, batelari, maistra etab.en ohorez izendatutakoak ere beharko genituzke.

Emakumeen izen eta lanbideak dituen kale, plaza eta eraikinen izendegia eskatzen dugu. Izendegia hiriak gogoratu eta goraipatu nahi duenaren islada baldin bada, ez dirudi Donostiak bertako biztanleen erdia gutxienez diren emakumeak oso kontutan hartu dituenik; Donostiako ia 800 kale eta plaza izenen artean 29 bakarrik dira emakumezko pertsonaienak.

Erregina, infanta, birjina, santa eta aristokraten aipamenak kenduz gero, 13 emakumerenak besterik ez zaizkigu geratzen.

Donostiako kale-izendegian erabiltzeko emakume izenez osatutako zerrenda irekia proposatu nahi dugu. Adibidez:

Bertsolariak: Marie Argain, Marie Etchegaray, Rosario Artola, Mikaela Elizegi...

Politikariak: Casilda Mendez, Paulina Arana Goiri, Dolores Ibarruri, Julia Alvarez, Carmen Querejeta, Plaza de Mayo-ko amak, Rigoberta Menchu...

Donostiako sufragistak: Benita Asas

Idazleak: Tene Mujika, Julene Azpeitia, Ernestina Champourcin-ekoa, Pilar de Cuadra...

Emakume-izen eta lanbideak kale, plaza, lorategi eta eraikuntza berriak izendatzeko erabiltzen dituen hiria, dudarik gabe, bertako biztanle guztiak gogoan dituen hiri integratzaileagoa izango da.

**Plazandreok**

**Emakumearen Ordezkaritzaren** laguntzaz
Donostiako Udala

## EMAKUMEAK KALEETAN

DONOSTIAKO IA 800 KALE ETA PLAZA IZENEN ARTEAN 29 BAKARRIK DIRA EMAKUMEZKO PERTSONAIENAK.

ERREGINA, INFANTA, BIRJINA, SANTA ETA ARISTOKRATEN AIPAMENAK KENDUZ GERO, 13 EMAKUMERENAK BESTERIK EZ ZAIZKIGU GERATZEN.

EMAKUME-IZEN ETA LANBIDEAK KALE, PLAZA, LORATEGI ETA ERAIKUNTZA BERRIAK IZENDATZEKO ERABILTZEN DITUEN HIRIA, DUDARIK GABE, BERTAKO BIZTANLE GUZTIAK GOGOAN DITUEN HIRI INTEGRATZAILEAGOA IZANGO DA.

Plazandreok

# LAS CALLES DE DONOSTIA



# UN FUTURO CON NOMBRE DE MUJER